


VULTOURIS IBILBIDEA: Benasako arroila (Nafarroa)

ZAILTASUNA:
ERRAZA



Benasako arroilaren beheko aldetik doan ibilbidea. Ibilbide laburra da, eder-ederra, aisiako eremutik eta ibaiko igerilekutik abiatzen dena. Gurutzatu zaldaina eta hartu ibai-ibilguaren ondoan ikusten ahal den bidexka, bitan banatzen den arte; une horretan berriz ere gurutzatu behar da erreka, pistatik jarraitu gabe, eta bideak zuzen-zuzen eramaten gaitu arrolara.

Nabarmentzeko modukoak dira atari ederra eta barnealdeko bidea; izan ere, zuhaitz-espezia asko eta asko daude bertan, eta erraza da ikustea horrelako eremuetako ezaugarri diren hegazti errupikolak: sai arrea, belatxingak, bele txikiak... Natur Erreserba eta Europar Batasunaren Intereseko Lekua izendatuta dago arroila hori, Natura 2000 sarearen barnean.

Ibilbidea familia oso-osoarentzat gomendatzen da. Ibilbidea osatzeko, Santa María del Campo eliza bisitatzen ahal da, Nabaskoze herriaren kanpoaldean.

IBILBIDEAREN FITXATEGIA



Ibilbidearen distantzia: 1,15 km
Gutxieneko altituda: 585 m
Gehiengo altituda: 629 m
Gehiengo desnibela: 44 m

**Centro de Interpretación de la
Naturaleza de Ochagavía**
31680 OCHAGAVÍA (Navarra)
Tel.: (+34) 948 890 680
oit.ochagavia@navarra.es

<http://es.wikiloc.com/wikiloc/view.do?id=1953840>
Argibide gehiago: www.vultouris.net · info@vultouris.net



GESTIÓN AMBIENTAL
DE NAVARRA S.A.



hoya de huesca
Comarca Hoya de Huesca • Plana de Uesco

FONDO EUROPEO DE DESARROLLO REGIONAL - EFA 04/08

